
ONOMASTICON VASCONIAE

18

JOSE LUIS UGARTE GARRIDO

URRETXU
ETA
ZUMARRAGAKO
TOPONIMIA



EUSKALTZAINDIA

JOSE LUIS UGARTE GARRIDO. Legazpin, 1963. urtean jaioa. Euskal filologian lizentziatua. Euskara, etnografia eta historiako gaietan zaletua. Herri mailako hainbat erakusketa eta ekitaldi antolatu ditu, esaterako: 1988, 1994 eta 1995. urteko erakusketa etnografikoak Legazpin; Gerhard Bähr hizkuntzalariaren heriotzaren 50. urteurrenaren omenezko ekitaldiak; Enrique Ginea gasteiztarraren *argazki zaharren erakusketa; ibilaldi eta garbiketa-lanak* 'Burdinola' elkartearekin... Lan filologikoei dagokienez, besteak beste, Martín Ugarte "Saletxe" idazlearen azken lana (*Legazpi barrutiko itzen bilduma*, 1993) apailatu du, eta azken urteotan Goierri garaiko toponimia eta euskara aztertzen ari da.

Hauk dira orain arte argitaratu dituen lan nagusiak:

* *Telleriarte etxez etxe*, Telleriarte auzo elkarte, 1994 (koordinatzaile eta egileetako bat).

* "Gerhard Bähr eta Euskal Herria", *Euskera*, 1995-2: 829-832.

* "Donde murió el oso", *ASJU* 29-2: 707-711, 1995.

* *Brinkola gogoan*, Eusko Ikaskuntza, Lankidetzan, 1998 (koordinatzaile eta egileetako bat).

* * *

Ikerketa lan honetan elkarren ondoan dauden Urretxu eta Zumarragako udalerrietako toponimoak aztertu dira (guztira, 2.700 inguru), 26,1 km²-tan sakabanatuta aurkitzen direnak, Zumarragako 18,2 km²-tan eta Urretxuko 7,9 km²-tan. Bi udalerriak Gipuzkoako hegoaldean daude, Urola ibaiaren goi-ibilguan; Urola bera da bien arteko muga.

Azterketa honek lau helburu bete nahi ditu:

a) **Bilketa historikoa**. Alegia, artxiboetan gorde diren agirien miaketen bidez, historian zehar Zumarraga-Urretxun erabili izan diren toponimoak jasotzea. Zenbait etxe eta baserritan utzitako eskritura eta agiri zaharren azterketa ere hemen sartuko da.

b) **Gaurko bilketa**. Kanpo lana da gehienbat, batekin eta bestearekin hitzeginez lortutako informazioa. Hala, agirietan azaltzen ez diren hainbat toponimo jasotzeaz gain, haien inguruko zenbait informazio bil daiteke: kokagunea, hedadura, adierakideak, jabetza, egungo ebakera,...

c) **Toponimoen finkapena edo normalizazioa**. Kontuan izanik, bai orain arte erabili izan diren irizpideak, bai toponimoaren jatorria, bilakaera historikoa, egungo ebakera eta abar, behin-behineko izen normalizatu bat proposatuko da.

d) **Plano toponimikoa**. Lan honek aurrekoen ondorio izan nahi du. Plano batean kokagune geografiko zehatza duten toponimoak txertatuko dira.

* * *

En el estudio que recoge esta publicación se han examinado alrededor de 2.700 topónimos de las poblaciones de Urretxu y Zumarraga, diseminados en una extensión de 26,1 km²: 18,2 km² correspondientes a Zumarraga y 7,9 km² de Urretxu. Ambos municipios se encuentran al sur de Gipuzkoa, en la zona alta de la cuenca del Urola, río que constituye la frontera entre ambas localidades.

Son cuatro los objetivos que pretende este trabajo:

a) **Recopilación histórica**. Es decir, una recogida de nombres toponímicos utilizados en Urretxu y Zumarraga a través de la historia, todo ello mediante la investigación de documentos custodiados en diferentes archivos.

b) **Recopilación actual**. Se trata del trabajo de campo; información recopilada a base de conversaciones mantenidas expresamente con los baserritarras de los dos municipios.

c) **Normalización toponímica**. Considerando los criterios utilizados hasta ahora, se propone un nombre normalizado para cada uno de los topónimos.

d) **Plano toponímico**. Se ha confeccionado un plano con el fin de dar a cada topónimo su ubicación geográfica correspondiente.



ONOMASTICON VASCONIAE

18

ONOMASTICON VASCONIAE

18


JOSE LUIS UGARTE GARRIDO

URRETXU
ETA
ZUMARRAGAKO
TOPONIMIA



EUSKALTZAINDIA

1998



Urretxu eta Zumarragako udalek, Gipuzkoako Foru Aldundiak, KUTXA Fundazioak
eta Eusko Jaurlaritzak babesturiko argitalpena

Liburu-sortaren zuzendaria / Director de la colección ONOMASTICON VASCONIAE: **Henrike Knörr**

Aholkularigoa / Consejo asesor: Euskaltzaindiaren Onomastika batzordea
Comisión de Onomástica de la Real Academia de
la Lengua Vasca / Euskaltzaindia

Burua: **Henrike Knörr**

Idazkaria: **Mikel Gorrotxategi**

Kideak: **Andrés Iñigo**

José Luis Lizundia

Patxi Salaberri

Juan San Martín

José María Satrustegi

© Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca

Plaza Barria, 15

48005 BILBAO

Tel. 94 - 415 81 55

Fax: 94 - 415 81 44

E-mail: euskalbilbo@jet.es

ISBN: 84 85479-89-0

Legezko Gordailua / Depósito Legal: NA-2.463

Fotokonposaketa / Fotocomposición: COPYPRINT-EREL, S. L.

Paulino Caballero, 38. 31003 Pamplona / Iruñea

Inprimaketa / Impresión: GRAPHYCEMS / Gráficas CEMS. S.L.

Polígono Industrial San Miguel

31132 Villatuerta / Bilatorra

Navarra / Nafarroa

Eraketa / Diseño: Enric Mir i Malé

Etxeko danai

AURKIBIDEA

ALKATEEN AGURRA	9
SARRERA-HITZAK.....	11
AURKEZPENA.....	13
SARRERA.....	15
Aztertutako eremua	15
Helburuak.....	16
Metologia.....	17
Lanaren aurkezpena.....	27
Bibliografia-orokorra	30
URRETXUKO TOPONIMIA	33
ZUMARRAGAKO TOPONIMIA.....	203
TOPONIMOEN AURKIBIDEA.....	479

Gauza bat gertatzen da harrigarri lan mardul hau lehenengo aldiz eskuartean hartzean: zenbat izen desberdin darabilzkigun gure inguru txiki hau izendatzeko, eta aldi berean, zenbat aldiz erabiltzen dugun izen bera edo antzekoa mutur bateko eta besteko tokiak izendatzeko. Izan ere, jasotako kopurua haundia bada, ez da gutxiagorako lekuizen edo toponimo horiek denek biltzen duten esanahia.

Izen horien esanahiaren atzean geure historiaren zati haundi bat dago gordea, gizaldiz gizaldi, zaharragoei ikasita, urtetan iraun duena, eta beti berrituz joan dena. Gizakia inguruari garaian-garaian nola egokitu izan zaion erakusten digute batetik, eta bestetik, gizakia ingurua nola aldatu eta moldatu izan duen. Ingurua eta gizakia batera doaz, lehengo zaharra oinarri, baina etengabe aldatzen eta berritzen.

Gizakiak eta inguruak elkarrekin osatutako historia horren aztarna dira izenak. Izenak, ordea, sortu dituen gizakia bezala, sortu eta hil egiten dira, ahaztea hiltzea baita; batzuetan ordea, inguruak bezalaxe, aldatu bai, baina iraun egiten dute. Katea zahar batean lotuta goaz beraz, mutur batetik katebegiak galdu ahala beste muturretik berriak ezarri. Katea zahar horri luze iraunaraztea da karkoa, gure aurrekoek egindako bidea galdu gabe.

Bide horretan ez galtzeko lan bikaina eskaini digu **Jose Luis Ugarte** egileak, Urretxu eta Zumarragako **Zintzo-Mintzo** euskaltzale elkartearen laguntzarekin. Herriaren ahotik jasotakoa herriari eskaini zion lehen ere poetak; hona hemen orain, herriaren ahotik jasotakoarekin liburua egin eta herritar guztioi eskainia.

Lan haundi eta sakon gehiago ere izan daitezela aurrerantzean, eta gure aurrekoekin lotzen gaituen katea horrek luze iraun dezala.

Urretxu eta Zumarraga, 1998ko urria.



Pello GONZALEZ ARGOMANIZ
Urretxuko alkatea



Anton ARBULU ORMAECHEA
Zumarragako alkatea

SARRERA-HITZAK

Lau urte igaro dira Zintzo-Mintzo Elkarteak liburu honen oinarri izango zen ideari heldu zionetik, ikerketa beka bat sortu eta bultzatzeko ideia hain zuzen ere.

Aipatutako beka eskuratzeko aurkeztu ziren lanen artean, "URRETXU ETA ZUMARRAGAKO TOPONIMIA BILKETA" izenburua zeramana aukeratu zuen epaimahaiak. Berehalaxe hasi zen lanean Jose Luis Ugarte egilea.


Benetan esan behar da Jose Luisek txingurri lana egin duela liburu honen edukia osatzeko, guztion probetxurako izango den ikerketa lan haundia; baserriz baserri, txokoz txoko, bere kuadernoa hartu eta hemen apuntatu, hor argazkia atera, beste hartan aitona-amona zaharrekin hitzegin, guztia mapetan kokatu, eta azkenik txukun antolatu eta aurkeztu. Ez da, ez, lan makala izan, makina bat ordu pasa eta datu mordoak jaso du; zoritxarrez, hasiera hartatik hona datuemaile asko joan zaizkigu.

Liburu hau altxor baliotsua dugu; ez da gauean oherakoan irakurtzen ohituak gauden horietakoa, baina gure inguruko leku-izen, datu eta bitxikeria ugari aurki dezakegu bertan. Altxor guztiak bezala ondo gorde beharrekoa, beraz, gure ondorengoek ere lagun izan dezaten, azken batean hortxe ezkututzen baita gure iragana.

Amaitu aurretik eskerrak eman, lehenik eta behin egileari, bere lana txukun eta ondo egin duelako; baita Urretxu eta Zumarragako Udalei ere, eskainitako laguntzagatik; Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Kutzari, eman dizkiguten dirulaguntzengatik; Euskaltzaindiari, gainbegiratze lana egin, aholkuak eman eta "*Onomasticon Vasconiae*" bilduman utzi digun lekuagatik; informatzaile guztiei, argitalpen honetan bildutako datuak emateagatik; eta azkenik, Zintzo-

Mintzon bertan liburu hau prestatzen aritu diren lagunei, izan ere guzti-guztiak ohartu baitira liburuaren balioaz. Mila esker denoi.

Eta bukatzeko zeuri ere eskerrak, irakurlerik gabe ez baitu merezi libururik idaztea.



AURKEZPENA

Onomastika geroago eta jakite berezituagoa zela erraten zuen Mitxelenak orain urte batzuk, eta bestela pentsatzeko arrazoirik ez dugu ikusten guk orain. Izan ere, hamaika alderdi diferente aintzat hartu behar dituen jakitea dugu izenez arduratzen dena: aurren-aurrena lan eremua finkatu beharra izaten da, eta ez bakarrik tokiaren aldetik, hautaturikako alderdia zer sakontasunez aztertu nahi dugun ere erabaki behar baitugu. Errazentzat har dezakegun finkatze lan horren ondoan artxiboetarako erromeria eten-gabea heldu da, paper zahar maiz eskertzarrekoen miaketa mantso akigarria. Ondoren bestelako erromeria dator, anitzetan lehenbiziko hori baino gogorrago gertatzen dena, paper zaharren ordainetan ikertzailea usu herabez hartzen duten nekazari, artzain eta iguraiak kausitzen baititugu, hots, landa lana egiteko ezinbesteko dugun informatzailearen rola hartuko dutenak.

Ordu luzez egindako grabaketak etxean poliki eta arretaz —askotan, balekibale, aurrera-atzeraka gabiltzala, informatzaileak azentua non ezarri duen zehaztu nahian edo hortz-hobietakoa begitantzen zaigun txistukaria benetan horrelakoa ote den argitu nahian— entzun eta berrentzun ondoren harribitxi zaizkigun toki izenak dagokien tokian dauden edo ez segurtatzea heldu da, halako bazterretxetara joan ginenean halako toponimoa zihoakion lekuan paratu ote genuen ikustea, alegia. Horrek, erran beharrik ez dago, telefono dei bat baino gehiago eta gure beila partikularraren saio berri bat baino gehiago du ondoretako, gauzak ongi egite aldera...

Horrekin guztiarekin batera, ez lehenago ez beranduago, gure alderdia deitu ohi duguna aldez edo moldez aztertzen duten historia lanak ikuskatzea edo sakonki irakurtzea dator, honelakorik bada, jakina, onomastika kontuak landu eta aztertu dituzten autorerik inportanteenen lanak irakurri eta guretu bidenabar, gero eginen ditugun —egiteko ausardia badugu bederik— etimologia saioen bermagailu.

Burutu beharreko beste lan bat toponimoen normalizazioa dugu. Zenbaitek toponimoak —deiturak bezala, bestalde— zergatik normalizatu behar diren galdegiten dute, zergatik ezin daitezkeen jasotzen diren bezala utz. Erantzuna

bistakoa da: toponimo ber baten hogei aldaera antzeko baina ez beti eta ez erabat berdin baditugu, zein hautatu behar dugu sarrera bakoitzaren izenburutako? Bestalde, toponimoak anitzetan karridak, plazak, etorbideak, industriaguneak eta abar izendatzeko erabiltzen dira, eta aldaera batu bat aukeratu ezean, nola egingen dugu hain garrantzizko den izendatze lan hori? Gainera, eta adibide bat paratzeagatik, dokumentazioan «Mendibelza» aurkitzen badugu, ez dugu eskubiderik egungo grafia erabiliaz «Mendibeltza» normalizatzeke? Guk baietz uste.

Jose Luis Ugarteren lan honetan aipatu ditugun alderdi horiek guztiak hartu dira aintzat, eta egoki hartu ere, leku izenen etimologian, zuhur jokatu, sobera sakondu nahi izan ez badu ere. Zernahi gisaz, biltzen dituen toponimoak —eta horien nolakoaren eta kokapenaren deskribaketa— lagungarri suertatuko zaizkigu dudarik gabe beste nonbaiteko toponimoen etimologia argitu nahi dugunean, hemengo eta hango izenak hartu, zer izendatzen duten eta non dauden kokaturik ikusi eta elkarrekin alderatzea baita, gure irudiz, toponimoen nondikakoa ikertzeko bidea, nork bere irudipenetatik ihes egin eta taxuzko ondorioak iristeko modu bakarra. Bukatzeko, erran nahi dugu toponimia, onomastika oro har, gure kultura ondarearen zati inportantea dela, eta, aieka honetatik, Jose Luis Ugarteren lanak ondare hori gordetzen eta hobeki ezagutzen lagunduko digula, ezbairik gabe. Hala biz.

Patxi Salaberri

SARRERA

1. AZTERTUTAKO EREMUA

Lan honetan, elkarren ondoan dauden Urretxu eta Zumarragako udalerrien toponimoak aztertu dira (2.729 hain zuzen), 26,1 km²-tan sakabanatuta aurkitzen direnak, Zumarragako 18,2 km²-tan eta Urretxuko 7,9 km²-tan. Bi udalerriak Gipuzkoako hegoaldean daude, Urola ibaiaren goi-ibilguan, eta honoko herriak dituzte mugakide: hegoaldetik Legazpi; ekialdetik Gabiri eta Ezkio-Itsaso; iparraldetik Azpetia eta Azkoitia; eta mendebaldetik Antzuola.

Zumarraga eta Urretxu mendiz inguratuta daude. Hauek dira garaienak: *Irimo* (900m), *Izazpi* (954m), *Samiño* (925m) eta *Argisao* (605m). Hiriguneak, berriz, 350 metroko garaieran daude kokatuta, haranaren barrenean. Bi udalerrien lur-azalerari dagokionez, esan beharra dago gehiena Urola arroaren barruan dagoela, baina ez guztia, Zumarragakoa den zati batek (*Argisao*, *Soraizakona*) Oria ibaira isurtzen baititu bere urak.

Urretxu, historikoki, bi eremutan banatu izan da: hirigunea batetik eta mendia bestetik. Baserri-auzo bakarra dagoela esan daiteke¹. Zumarragan, aldiz, sei alderdi mugusi bereiz daitezke: hirigunea eta bost baserri-auzo edo «soskera»².

-
1. Azken mendeetako udal agiriei erreparatuz gero, Urretxuko baserriak ez dira auzo desberdinetan banatu izan. Bestela esanda, baserri guztiak *Mendieta* edo *Mendia* izeneko auzoan kokatzen dira. Baina ez dirudi errealitatean hori horrela izan denik, baserri batzuk Zumarragako *Leturi*-koekin eta beste batzuk Legazpiko *Elbarrena*-koekin harreman handiak izan baitituzte, beharbada *Mendieta*-koekin baino handiagoak. Harreman horiek, Erdi Aroan udalerriaren mugak ezarri baino lehenagokoak izan daitezke.
 2. XVIII. mendeko Zumarragako hainbat agiritan (ZUA10, 1726; ZUA10, 1734) «soskera» hitza erabiltzen da auzoa adierazteko: «Sosquera de Leturia», «Sosquera de Soraiz», «Sosquera de Elgarresta»... Mende horretan, urte batzuk beranduago (ZUA10, 1749), «barrio» ere irakur daiteke: «Varrio de Leturia», «Varrio de Soraiz», «Varrio de Elgarresta»...

2. HELBURUAK

Azterketa honek lau helburu bete nahi ditu:

a. **Bilketa historikoa.** Alegia, artxiboetan gorde diren agirien miaketen bidez, historian zehar Zumarraga-Urretxun erabili izan diren toponimak jasotzea. Zenbait etxe eta baserritan utzitako eskritura eta agiri zaharren azterketa ere hemen sartuko da.

b. **Gaurko bilketa.** Kanpo lana da gehienbat, batekin eta bestearekin hitzeginez lortzen den informazioa. Hala, agirietan azaltzen ez diren hainbat toponimo jasotzeaz gain, haien inguruko zenbait informazio bil daiteke: kokagunea, hedadura, adierakideak, jabetza, egungo ebakera...

c. **Toponimoen finkapena edo normalizazioa.** Kontuan izanik, bai orain arte erabili izan diren irizpideak, bai toponimoaren jatorria, bilakaera historikoa, egungo ebakera eta abar, behin-behineko izen normalizatua proposatuko da.

d. **Plano toponimikoa.** Lan honek aurrekoen ondorio izan nahi du. Plano batean kokagune geografiko zehatza ezagutzen zaien toponimoak txertatuko dira

	URRETXU	ZUMARRAGA	GUZTIRA
Toponimoak guztira	1.013	1.716	2.729
88-13 planoan kokatuak (*)		32	32
88-14 planoan kokatuak		11	11
88-21 planoan kokatuak	105	170	273
88-22 planoan kokatuak		141	141
88-29 planoan kokatuak	310	30	334
88-30 planoan kokatuak		286	286
88-37 planoan kokatuak	15	44	59
88-38 planoan kokatuak		80	80
Adierakideak	210	379	589
Kokatuak guztira (adierakideak barne)	640	1.173	1.805

(*) Erreferentzia horiek Gipuzkoako Aldundiko 1:5000 eskalako planoenak dira.

Atal honetan adierazi behar da, hiri-toponimiari dagokionez a eta c puntuak aztertu direla, ez ordea b eta d.

3. METODOLOGIA

3.1. TOPONIMOEN BILKETA

3.1.1. Iturri idatziak

Lau motatako iturri idatziak arakatu dira ikerketa-lan hau osatzeko: artxiboatako agiriak, iturri bibliografikoak, planoak eta jabego-eskriurak. Miatutako artxiboatik hiru izan dira bereziki: Urretxuko Udal Artxiboa, Zumarragako Udal Artxiboa eta Gipuzkoako Protokolo Artxiibo Historikoa (Oñatin kokatua), gehiagoetatik ere informazioa bildu den arren, hala nola, Legazpiko Udal Artxiobotik, Iruñeko Elizbarrutiko Artxiobotik, Donostiako Elizbarrutiko artxiobotik, Ezkioga eta Azkoitiko udal artxiboatatik. Haietan, ustez toponimoak ugariak ziren agiriak begiratu dira, baina hainbat eta hainbat alde batera utzi behar izan dira.

Penaz eta ezinez XVI. eta XVII. mendeko zenbait agiriren hustuketa egin gabe geratu da, horietako informazioa urria izan arren toponimia lanerako oso baliotsua dela ongi badakigu ere. Baina, agirien egoera kaskarrak eraginda batzuetan, irakurketaren zailtasunak gehienetan, bertan behera utzi behar izan dira.

Jabego-eskriurei dagokionez, esan beharra dago aztertu diren gehienak baserrietan utzitakoak izan direla.

3.1.1.1. Artxiboatako agiriak

- HIPO1: Gipuzkoako Protokolo Artxiibo Historikoa / H-329 (*Hipotekak, Urretxu, 1768-1801*)
- HIPO2: Gipuzkoako Protokolo Artxiibo Historikoa / H-330 (*Hipotekak, Urretxu, 1801-1842*)
- HIPO3: Gipuzkoako Protokolo Artxiibo Historikoa / H-331 (*Hipotekak, Urretxu, 1845-1862*)
- HIPO4: Gipuzkoako Protokolo Artxiibo Historikoa / H-332 (*Hipotekak, Urretxu, 1862*)
- HIPO5: Gipuzkoako Protokolo Artxiibo Historikoa / H-329 (*Hipotekak, Zumarraga, 1774-1775*)
- HIPO6: Gipuzkoako Protokolo Artxiibo Historikoa / H-599 (*Hipotekak, Zumarraga, 1780-1844*)
- HIPO7: Gipuzkoako Protokolo Artxiibo Historikoa / H-333 (*Hipotekak, Zumarraga, 1845-1860*)
- HIPO8: Gipuzkoako Protokolo Artxiibo Historikoa / H-334 (*Hipotekak, Zumarraga, 1860-1862*)
- UUA1: Urretxuko Udal Artxiboa / E,4,IV,4,1 (1764)
- UUA2: Urretxuko Udal Artxiboa / E,7,I,10,2 (1832)
- UUA3: Urretxuko Udal Artxiboa / E,7,II,6,1 (1827)
- UUA4: Urretxuko Udal Artxiboa / C,5,II,2,4 (*"Reconocimiento de caminos públicos y de servidumbre existentes en Villarreal", 1548, 1777*)
- UUA5: Urretxuko Udal Artxiboa / E,5,I,1,7 (1613)

- UUA6: Urretxuko Udal Artxiboa / C,5,II,1,10 ("*Reconocimiento de mojones en Larregi*", 1717; "*Colocación de tres mojones en términos de Larregi*", 1771; "*Ysasis y Ostabaso*", 1783)
- UUA7: Urretxuko Udal Artxiboa / C,5,I,1,6 ("*Diferencias ocurridas entre el Concejo de Villarreal y Andrés de Abendaño -Alcalde Mayor de Areria- por la negativa de Villarreal a arreglar los caminos que van de esta villa a la de Azkoitia y el paso de Arcaiz de Sasieta*")
- UUA8: Urretxuko Udal Artxiboa / C,5,I,1,11 ("*Reconocimiento de mojones que dividen Legazpia y Villarreal*", 1768)
- UUA9: Urretxuko Udal Artxiboa / C,5,II,2,1 ("*Libros de plantaciones de arboles*", 1736-1808)
- UUA10: Urretxuko Udal Artxiboa / C,5,II,2,2 ("*Documentación relativa a talas y mediciones de terrenos para señalar los ostabaso*", 1751)
- UUA11: Urretxuko Udal Artxiboa / C,5,II,3,1 ("*Permuta de tierras entre la villa, su cabildo eclesiástico y varios particulares*", 1781)
- UUA12: Urretxuko Udal Artxiboa / C,5,II,3,6 ("*Enajenación de fincas concegiles*", 1808-1815)
- UUA13: Urretxuko Udal Artxiboa / C,5,II,3,2 ("*Bienes mostrencos y abintestatos*", 1781-1828)
- UUA14: Urretxuko Udal Artxiboa / C,5,II,3,8 ("*Mediciones de terrenos*", 1810-1839)
- UUA15: Urretxuko Udal Artxiboa / C,5,II,3,17 ("*Mediciones de terrenos realizados por peritos agrimensores*", 1880-1931)
- UUA16: Urretxuko Udal Artxiboa / B,5,I,1,2 (1876)
- UUA17: Urretxuko Udal Artxiboa / (1887)
- UUA18: Urretxuko Udal Artxiboa / (1897ko bizilagunen errolda)
- UUA19: Urretxuko Udal Artxiboa / (1885eko bizilagunen errolda)
- UUA20: Urretxuko Udal Artxiboa / (1920ko bizilagunen errolda)
- UUA21: Urretxuko Udal Artxiboa / C,4,III,1,24-29 (Ermitak)
- UUA22: Urretxuko Udal Artxiboa / E,6,II,4,10 (1588)
- UUA23: Urretxuko Udal Artxiboa / D,4,I,1,23 (1748)
- UUA24: Urretxuko Udal Artxiboa / C,5,II,1,13 (Sagastitxipiko iturria, 1623)
- ZUA1: Zumarragako Udal Artxiboa / C,2,-,1,1 (Zergapekoen zerrenda, 1543)
- ZUA2: Zumarragako Udal Artxiboa / C,5,I,1,20 ("*Amojonamiento General de Zumarraga*", 1889)
- ZUA3: Zumarragako Udal Artxiboa / (1927)
- ZUA4: Zumarragako Udal Artxiboa / B,6,I,1,1 ("*Estado de las Rentas de las fincas de Zumarraga*", 1814)
- ZUA5: Zumarragako Udal Artxiboa / B,6,II,1,4 (1877ko bizilagunen errolda)
- ZUA6: Zumarragako Udal Artxiboa / ("*Reconocimiento de mojones de los términos concegiles de Zumarraga, colindantes con Azkoitia*", 1752-08-01)
- ZUA7: Zumarragako Udal Artxiboa / C,7,III,1,18 ("*Estado de la liquidación general de la contribución*", 1808-1813; 1828an burutua)
- ZUA8: Zumarragako Udal Artxiboa / A,1,I,2 ("*Iguala de los vecinos de Zumarraga con el médico*", 1741)
- ZUA9: Zumarragako Udal Artxiboa / A,1,I,1 (Bilkura-liburua 1652-1687)
- ZUA10: Zumarragako Udal Artxiboa / A,1,I,2 (Bilkura-liburua 1720-1753)
- ZUA11: Zumarragako Udal Artxiboa / A,1,I,3,1 (Bilkura-liburua 1754-1789)

- ZUA12: Zumarragako Udal Artxiboa / E,7,I,4,55 (“*Escritura de reconocimiento de gravámenes y censos sobre la casería Ynsausti mayor y menor*”, 1718)
- ZUA13: Zumarragako Udal Artxiboa / C,5,II,17,4 (“*Escritura de venta y permuta del paraje llamado Legazpi Chipi*”, 1734)
- ZUA14: Zumarragako Udal Artxiboa / 630-25 (“*Reconocimiento de mojonos, rozaduras y camino para San Martín entre la Vª de Zumarraga y el dueño de las Aginagas*”, 1782)
- ZUA15: Zumarragako Udal Artxiboa / B,6,I,4,11 (“*Lista de las Juntas y Caballerías*”, 1810)
- ZUA16: Zumarragako Udal Artxiboa / B,6,I,4,16 (“*Estado de la riqueza pecuaria*”, 1882)
- ZUA17: Zumarragako Udal Artxiboa / B,6,I,4,17 (“*Estado del número de cabezas de ganado*”, 1888)
- ZUA18: Zumarragako Udal Artxiboa / B,6,I,4,29 (“*Estado de la riqueza pecuaria*”, 1920)
- ZUA19: Zumarragako Udal Artxiboa / B,6,I,1,3 (“*Estado de las rentas de las fincas rústicas y urbanas*”, 1861)
- ZUA20: Zumarragako Udal Artxiboa / B,6,I,1,4 (“*Estado de las rentas rústicas y urbanas*”, 1871)
- ZUA21: Zumarragako Udal Artxiboa / (1920ko bizilagunen errolda)
- ZUA22: Zumarragako Udal Artxiboa / 630-2 (“*Escritura de concordia de la casa de Abendaño con la universidad de Zumarraga*”, 1478)
- ZUA23: Zumarragako Udal Artxiboa / C,5,II,4,2 (“*Reparto de los caminos serbidumbres de esta Vª de Zumarraga*”, 1827)
- ZUA24: Zumarragako Udal Artxiboa / (Batzar-agiriak, 1947)
- ZUA25: Zumarragako Udal Artxiboa / A,6,1,1 (1526)
- DEA1: Donostiako Elizbarrutiko Artxiboa / (1628)
- DEA2: Donostiako Elizbarrutiko Artxiboa / 15180200-559 (“*Libro de Bautizados, Finados y Casados*”, 1882-1919)
- Zkat: Zumarragako Katastroa, 1957, Zumarragako Udaletxea
- LUA1: Legazpiko Udal Artxiboa / 171-4 (“*Relación de mojonos y mapas, situación de 1608-1614*”)
- LUA2: Legazpiko Udal Artxiboa / (Zumarragako Arizti baserria, 1721)
- IEA1: Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboa (1698)
- IEA2: Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboa / Lib.1690, exp.39 (1764)
- IEA3: Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboa / Lib.2061, exp.5 (1776)
- EUA: Ezkiogako Udal Artxiboa / (1857ko bizilagunen errolda)
- GAO1: Gipuzkoako Agiritegi Orokorra / *Elorza Civiles* 511
- GAO2: Gipuzkoako Agiritegi Orokorra / *Mendiola Ejecutivos* 239

3.1.1.2. Iturri bibliografikoak

- F6: Díez de Salazar, L.M., 1985, *Colección Diplomática del Concejo de Segura (Guipúzcoa) (1200-1500). Tomo I (1290-1400)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco nº 6, Donostia, Eusko Ikaskuntza
- F57: Crespo, M.A. eta beste, *Fuentes documentales medievales del País Vasco. Colección documental del archivo municipal de Bergara, Tomo I (1181-1497)*, Fuentes bilduma 57, Donostia, Eusko Ikaskuntza

- F60: Ayerbe, R.M., 1995, *Documentación medieval del archivo municipal de Legazpia 1290-1494*, Fuentes documentales medievales del País Vasco nº 60, Donostia, Eusko Ikaskuntza
- ESHU: Askoren artean, 1986, *Estudios de Historia de Urretxu*, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Urretxuko Udala
- Isasti: Martínez de Isasti, L., 1972 (1850), *Compendio Historial de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa (1625)*, Donostia
- Nom: Gipuzkoako Aldundia, 1857-1864, *Nomenclátor de la provincia de Guipúzcoa*, argitaragabea
- Jaka1: Jaca, A.C., 1983, *Ensayo para una historia de Urretxu*, I. tomoa
- Jaka2: Jaca, A.C., 1983, *Ensayo para una historia de Urretxu*, II. tomoa
- SL: Jaca, A.C. eta beste, 1992, *El Solar de Legazpi*, Gipuzkoako Foru Aldundia
- Tell: Telletxea, J.I., 1975, *Sta. Marta de Zumarraga: La Antigua y nueva parroquia (1576-1876)*, argitaragabea
- Asti: Astiazaran, M.I., 1995, *La construcción de Caminos reales de Gipuzkoa en el siglo XVIII*, Donostia, Gipuzkoako Aldundia (1765-1770ko datuak)
- HCZ: Prada, A., 1989, *Historia de Caseríos de Zumarraga*, argitaragabea
- Mun: Altuna eta beste, 1990, "Gipuzkoako karta arkeologikoa" in *Munibe*, 7. gehigarria
- CDM: Martínez, G. eta beste, 1991, *Colección de Documentos Medievales de las Villas Guipuzcoanas (1200-1369)*, Gipuzkoako Foru Aldundia
- Muj: Mujika, S., 1911-1927, "Provincia de Guipúzcoa" in *Geografía del País Vasco-Navarro* Vol.II, Bartzelona

3.1.1.3. Planoak

- Plano1: Urretxuko hiribarruaren planoak; 1951; Urretxuko Udal Artxiboa
- Plano2: Kale-izendegia; 1996; Urretxuko udala
- Plano3: Urretxuko ur hornidura; 1935; Agirre baserria
- Plano4: Ramirez de Okariz, I., eta beste, 1994, *Antzuolako mapa toponimikoa*
- Plano5: Legazpiko herri-mugarriak; 1805; Legazpiko udala
- Plano10: Trenbidearen taiuketa Zumarragako eliza inguruan; 1858; Zumarragako Udal Artxiboa
- Plano11: Trenbidearen taiuketa Matxaindik Legazpijauregi bitartean; 1858; Zumarragako Udal Artxiboa
- Plano12: Zumarragako kaleen planoak; 1993; 1:2000; Zumarragako Udal Artxiboa
- Plano13: Zumarragako planoak; 1890; 1:1000; Zumarragako Udal Artxiboa
- Plano14: Zumarragako hiri berriaren proiektua; 1860; 1:1000; Zumarragako Udal Artxiboa
- Plano15: "Plano de División de las caserías Aginaga, Mujika, Martiamunea y Urdanbieta en Azkoitia"; 1922-10-12; Eskala: 1: 2.000; Muxika baserria
- Plano16: Gurrutxagarakoari dagozkion sailak; Santos Agirrebengoak egindako planoak (1928); Gurrutxagarako baserria
- Plano17: Legazpiko herri-mugarrien plano zahar bat; Legazpiko Udal Artxiboa
- Plano 18: Zumarragako hiribarruaren planoak; 1950; Zumarragako Udal Artxiboa

3.1.1.4. Jabego-eskiriturak

- EE1: *Beidakar* baserriaren eskiriturak

- EE2: *Agirre* baserriaren eskriturak
 EE3: *Kaminpe* etxaldearen plano bat (1881)
 EE4: *Erratzugoikoa* baserriaren eskriturak
 EE5: *Zabaleta* baserriaren eskriturak (1992)
 EE6: *Beainemendikoa* baserriaren eskriturak
 EE10: *Zumakorta* baserriaren eskriturak (1979)
 EE11: *Aizkibel* baserriaren eskriturak (1982)
 EE12: *Aranburuerdikoa* baserriaren eskriturak (1983)
 EE13: *Izuzkitza* baserriaren eskriturak (1942)
 EE14: *Muxika* baserriaren eskriturak (1966)
 EE15: *Matxainbarrena* baserriaren eskriturak
 EE16: Eitzagako *Elizondo* etxearen eskriturak (1987)
 EE17: *Martiamuno* baserriaren eskriturak (1994)
 EE18: *Mendizabal* baserriaren eskriturak (1917)
 EE19: *Buztintza* baserriaren eskriturak (1994)
 EE20: *Izagirreaundi* eta *Izagirretxiki* baserrien eskriturak (1993)
 EE21: *Okorro* baserriaren eskriturak (1968)
 EE22: *Atxibitabekoa*, *Iburretagarakoa* eta *Atxibitaerdikoa* baserrien eskriturak (1988)
 EE23: *Egi* baserriaren eskriturak (1973)
 EE24: *Iburretagarakoa* baserriaren eskriturak (1972)
 EE25: *Ondarra* baserriaren eskriturak (1939)
 EE26: *Oraagoikoa* baserriaren eskriturak (1979, 1989, 1990)
 EE27: *Alzola* baserriaren eskriturak (1983)
 EE28: *Oraazpikoa* baserriaren eskriturak (1987)
 EE29: *Saltsamendi* baserriaren eskriturak
 EE30: *Urdanbideta* baserriaren eskriturak (1977)
 EE31: *Urdanbideta* baserriaren eskriturak (1991)
 EE32: *Abendaño* baserriaren eskriturak (1968)
 EE33: *Oiangurentxiki* baserriaren eskriturak (1961)
 EE34: *Olaarte* baserriaren eskriturak (1966)
 EE35: *Gurrutzagagarakoa* baserriaren eskriturak
 EE36: *Elgarresta* baserriaren eskriturak (1958)
 EE37: *Urazandi* baserriaren eskriturak (1923)
 EE38: *Oraazpikoa* baserriaren eskriturak (1919)

3.1.2. Ahozko bilketa

Ahozko bilketa sistematikoa izan da, Urretxu eta Zumarragako baserri guztietara egin baita bisita. Eta mende honetan eraitziko baserrietako jabe edo maizterrengana ere bai. Baserritarrak izan dira beraz berriemaileak, aukeraketarik egin gabe.

Hauek izan dira berriemaileak:

- Agirrebengoa Rouse, Xabier* (1953 Gurrutzagagarakoa, Zumarraga)
Aiastui Zabaleta, Angela (1910 Beidakar, Urretxu; Mendizabal, Urretxu)
Aiastui Zabaleta, Eusebia (1912 Beidakar, Urretxu)
Aizkibel Bastarrika, Martin (1920 Aldasbarren, Zumarraga)

- Alberdi Aranzabal, Jose* (1949 Beainemendikoa, Urretxu)
Alberdi Ormazabal, Arantxa (1951 Gurrutzagaazpikoa, Zumarraga)
Alberdi Urbietta, Bautista (1920 Itziar; Leturiondo, Zumarraga)
Alkorta Arabaolaza, Francisca (1941 Erosidoeta, Urretxu)
Alzola Ugalde, Constantina (1935 Ondarra, Zumarraga)
Anduaga Makibar, M^a Ines (1917 Matxainbarrena, Zumarraga)
Andueza Zabaleta, Justo (1929 Elgarresta, Zumarraga)
Antia Askasibar, Luciano (1939 Gerra, Urretxu)
Antia Zabaleta, Justo (1915 Lizaratzuerrota, Zumarraga)
Arakama Zaldua, Blas (1917 Elorriagaazpikoa, Zumarraga)
Aramendi Alberdi, Andres (1909 Okorro, Zumarraga; Urdanbideta, Zumarraga)
Aranberri Aldanondo, Juan (1936 Elorriagagoikoa, Zumarraga)
Aranberri Aldanondo, Miguel (1941 Elorriagagoikoa, Zumarraga)
Aranburu Arrieta, Joaquina (1913 Igarzabalerdikoa, Ezkioga; Gerraerrota, Zumarraga)
Aranburu Zaldua, Luisa (1937 Arizti, Zumarraga)
Aranguren Alzelai, Cipriano (1936 Zuloaga, Urretxu)
Aranguren Aranguren, Ignacio (1915 Aranburualdekoa, Zumarraga)
Aranguren Areizaga, Carmen (1915 Urruti, Zumarraga)
Aranguren Gurrutzaga, Ignacio (Antxunberri, Azpeitia)
Aranguren Plazaola, Jose Mari (1902 Agiñagabarrena, Zumarraga)
Aranzadi Aranburu, Segundo (1914 Mañeri, Urretxu; Oruezabaletatik, Zumarraga; Iturbenea, Zumarraga)
Areizaga Beain, Felipe (1921 Etxaburu, Urretxu)
Areizaga Beain, Pedro (1923, Etxaburu, Urretxu)
Arostegi Kortaberria, Miguel (1927 Aizpuru, Zumarraga)
Arrieta Arrizabalaga, M^a Jesus (1934 Pagoeta, Urretxu; Dornaldegietxeberri, Urretxu; Erratzugoikoa, Urretxu)
Askasibar Liarralde, Josefa (1905 Gerra, Urretxu)
Balenziaga Arondo, Juan M^a (1943 Matxainerdikoa, Zumarraga)
Bastarrrika Altolagirre, Domingo (1914 Bidaurreta, Zumarraga)
Begiristain Plazaola, Jose Antonio (1952 Muxika, Zumarraga)
Begiristain Plazaola, Luis (1915 Muxika, Zumarraga)
Beristain Urkiola, Jose Martin (1916 Ojarbideazpikoa, Ezkioga; Oianguren, Zumarraga)
Betegi, Juan Pedro (1947 Beidakar, Urretxu)
Elgarresta Legorburu, Ignacio (1925 Aietsu, Urretxu; Arkaitz, Urretxu)
Elgarresta Iturbe, Genaro (1916 Mendizabal, Legazpi)
Elizburu Agirre, Juliana (1939 Larreaga, Urretxu)
Epelde Lizarralde, Asuncion (1922 Aitube, Azkoitia; Leturigoena, Zumarraga)
Etxaniz Aizpurua, Jose (1930; Kortaberri, Zumarraga)
Etxaniz Aranburu, Jose Mari (1963 Landaburu, Zumarraga)
Etxaniz Zaldua, Jesus (1928 Landaburu, Zumarraga)
Etxeberria Badiola, Andres (1924 Intsausti, Zumarraga)
Etxezarreta Intxausti, Juana (1909, Itsaso; Aranburuetxeberri, Zumarraga; Etxaburu; Urretxu)
Etxezarreta Sodupe, Manolo (1931 Aranburuetxeberri, Zumarraga)
Guridi Iturbe, Daniel (Inurriarrozpikoa, Antzuola)
Ibarguren Urteaga, Jose (1927 Ibarguren etxeberri; Zumarraga)

- Igartua Urkiola, Francisco* (1921 Urruti, Zumarraga)
Intxausti Mujika, Victoriano (1944 Saltsamendi, Zumarraga)
Iparragirre, Celestina (Baztarrriña, Antzuola; Ursalto; Antzuola)
Irastorza Erauskin, Jose Ignacio (1955 Iturbeazpikoa; Urretxu)
Irizar Laskurain, M^a Cruz (1920 Bazterriñabekoa, Antzuola; Izuzkitza, Zumarraga)
Irureta Elgarresta, Puri (1935 Sasieta, Urretxu)
Iturbe Sudupe, Josefa (1913 Oraazpikoa; Zumarraga)
Iurrebaso Lizarralde, Pedro (1924 Kamiñeroetxea, Urretxu)
Izagirre Aiastui, Ignacio (1938 Ipenarrietatorrea, Urretxu)
Izagirre Andueza, Francisco (1929 Saltsamendi, Zumarraga)
Izagirre Lakunza, Mariano (1937 Deskargazar, Urretxu)
Izagirre Pildain, Jose Antonio (1918 Atxibitabekoa, Zumarraga)
Jauregi, Isabel (Sarasketazar, Antzuola, Inurrigarroazpikoa; Antzuola)
Jauregi Amilleta, Jose Mari (1926 Oraagoikoa, Zumarraga)
Jauregi Lizarralde, Justina (1932 Errepelde, Zumarraga; Urdanbideta, Zumarraga)
Legorburu Zabaleta, Jesus (1922 Mendizabal, Zumarraga)
Lete Sudupe, Maria (Ule, Azkoitia; Irigoien, Urretxu)
Leunda Agirre, Jose (1937 Zabaletaetxeberri, Urretxu)
Lizarazu Unanue, Pedro (1928 Elizalde, Zumarraga)
Lizarralde Galdos, Victoriano (1936 Agirre, Zumarraga)
Lizarralde Galdos, Mari Carmen (1931 Agirre, Zumarraga; Soraiz; Zumarraga)
Lizarralde Plazaola, Axier (1973 Agirreetxeberri, Zumarraga)
Mendizabal Astigarraga, Natividad (1950 Korta, Zumarraga)
Mendizabal Zaldúa, M^a Resurreccion (1919 Oruezabaleta, Zumarraga)
Mintegi Pildain, Maria (1943 Oiangurentxiki, Zumarraga)
Murua Iturbe, Jose (1947 Larreaga, Urretxu)
Olaetxea Mendizabal, M^a Jesus (1942 Ipintza, Zumarraga)
Ormazabal Mendia, Ceferina (1914 Altzeta, Zumarraga)
Pildain Arrizabalaga, Jose Mari (1942 Dornaldegiatxeberri, Urretxu)
Plazaola Alberdi, Jose Mari (1949 Kaminpe, Urretxu)
Plazaola Alkorta, Victoriano (1932 Martiamuno, Zumarraga)
Plazaola Aranguren, Jesus (1952 Beainandikoa, Urretxu)
Plazaola Irizar, Marcial (1947 Izuzkitza, Zumarraga)
Plazaola Lete, German (1946 Zumakorta, Zumarraga)
Plazaola Zinkunegi, Patxi (Abendaño, Zumarraga)
Puldain Zabala, Maria (1927 Egi, Zumarraga)
Riallos Barrios, Palmira (1923 Azkoitia; Zabaleta; Urretxu)
Salaberria Beain, Ignacio (1933 Erratzugoikoa, Urretxu)
Salaberria Izagirre, Juan Miguel (1907 Erratzugoikoa, Urretxu)
Sasieta Telleria, Pedro (1935 Agirre, Urretxu)
Sasieta Aiastui, Claudio (1935 Mendizabal, Urretxu)
Soraluze Alberdi, Juan (1944 Leturibarrena, Zumarraga)
Sudupe Etxezarreta, Isidro (1932 Aranburuerdikoa, Zumarraga)
Telleria Iburguren, Vicente (Egibide, Zumarraga)
Toledo Badiola, Juan (1935 Abendaño, Zumarraga)
Urkiola Zaldúa, Maria (1926 Berroeta, Ezkioga; Anduezu, Zumarraga)
Urrate Riallos, Angel (Zabaleta; Urretxu)
Urreaga Zabaleta, M^a Isabel (1944 Intxenea, Urretxu)
Zabala Epelde, Ignacio (1944 Txerren, Zumarraga)

Zabala Epelde, Julian (1950 Txerren, Zumarraga)
Zabaleta Aiastui, Vicente (1926 Iturbeetxeberri, Urretxu)
Zabaleta Goitia, Antonio (1942 Urruzti, Zumarraga)
Zabaleta Jauregi, Miren (1935 Beainandikoa, Urretxu)
Zabaleta Peñagarikano, Isidro (1917 Kalea, Zumarraga)
Zabaleta Sasieta, Martin (1933 Zabaleta, Urretxu)
Zabaleta Zubizarreta, Josefa (1919 Sasieta, Urretxu)
Zaldua Irastorza, Jose (1928 Buztintza, Zumarraga)
Zaldua Korta, Elias (1944 Sagaspe, Zumarraga)
Zubizarreta Gurrutxaga, Juana (1919 Eguzkitza, Urretxu)
Zubizarreta Zaldua, Jose Manuel (1933 Etxeberrilizaratzu, Zumarraga)
Zubizarreta Mendiola, Jose Antonio (1931 Otsolarre, Azkoitia)
Zufiaurre Lizarralde, Ignacio (1922 Irigoien, Urretxu)
Zunzunegi Azurmendi, Ignacio (1943 Olaarte, Zumarraga)

3.2. NORMALIZAZIOA

3.2.1. Objektu geografikoekiko sarrera-irizpideak

Izen berberak objektu geografiko edo kokagune desberdinak adierazten dituenean, horietako bakoitzari sarrera bana eman zaio, ez baita hizkuntz ikuspegi soilean geratu nahi izan. Hala, Urretxun *Zabaleta* izenez, historian zehar, gutxienez bost objektu geografiko ezagutu direnez gero (baserria, etxaldea, erreka, harana eta zubia, denak ingurune batekoak), sarrera bana eman zaie.

Bestalde, askotan gertatzen da objektu-geografiko bera adierazten duten toponimoak (*Otainerreka*, esate baterako) leku batean baino gehiagotan azaltzea, kokagune desberdinak izatea, alegia. Horietan ere sarrera bana eman zaie.

Bildutako toponimo guztiak Jimeno Jurio-ren sailkapenaren arabera banatu dira, haietako bakoitza objektu geografiko edo kontzeptu jakin batekin lotuz (ikus beheerago).

3.2.2. Hizkuntz irizpideak

3.2.2.1. Toponimoak loturik edo bereiz

Toponimo gehienak hitz bakar batean normalizatu dira eskuarki, bestela jokatuz gero ez baita erraza irizpideak finkatzea. Horrela egin da ondoko kasuetan ere:

Izen espezifikoa +izen generikoa

Sorginzuloerreka, Beainerreka, Agirreetxea, Aizpuruetxea, Arriaundisakona...

Ikertu den eremuan, normalean, errekek berak ez du izen espezifikorik, parajearen izenari «erreka» hitza erantsiz lortzen baita. Badira, horrela, hiru izen diferente ere dituzten errekek (*Basabaztarrerreka, Troskaerreka, Okorroerreka*, esate baterako). Bi kontzeptuak bereizi ahal izateko (parajea eta erreka) «erreka»-z amaitutako deitura horiek toponimotzat hartu dira.

Bestalde, oikonimoetan azaltzen diren «etxe»-ak lehen osagaiari loturik idatzi dira: *Aizpuruetxea, Agirreetxea...* «Etxe» horiek, gainera, jatorrizko etxe edo baserriaren deituratik bereizteko balio digute. Hala, goiko deituren ondoan *Aizpuru* eta *Agirre* baserriak dira.

Izena + osagai lokatiboa

Zumakortaegikoa, Mendiarsemendikoa, Gurrutxagarakoa...

Hala ere, badira bi hitz edo gehiagoz normalizatu diren toponimoak:

*Hagionimoak: *Santa Barbara, San Kristobal, Santa Krutz...* baina *Santabarbaralde, Santakruzalde...*

*Espezifikoak, deklinabide morfemaren bat daramanean: *Goiko txabola, Larregiko harrobia, Juanen soro...* Bigarren lekuan doan izen generikoa «batuaren» grafiaz normalizatu da gehienetan.

*Agirietan behin edo behin azaltzen diren elkarketa ez-ohikoak: *Mendiarras-Intxenea, Elgarresta-Alontsotegi, Erratzugoikoa-Moral, Aizkibel-Jauregi...*

*Gaztelazko osagaiaren bat dugunean: *Beain de allí, Casa del concejo, Cuartel del norte, Erratzu mayor...*

3.2.2.2. -a mugatzailea

Toponimoak normalizatzeko garaian historian zehar izandako bilakaera nahiz egungo ebakera izan dira kontuan. Mugatzaile singularrari dagokionez egungo ebakera erabakigarria izan da determinatzailea jarri edo kentzekorakoan. Dena den, egungo ebakerarik jaso ez den kasuetan agirietan, gehien azaltzen den bezala normalizatu da. Hala, Zumarragako atalean *Leturi* normalizatu da, miatutako agiri guztietan *Leturia* gisa azaldu arren; izan ere, egungo ebakera -a-rik gabekoa da. *Etxezuria*-ren kasuan, aldiz, determinatzailea utzi da, ez baita gabeko bertsiorik aurkitu.

-*Enea* atzizkia daramaten oikonimoetan ere egungo ebakera aintzat hartu da eta *Prontxone, Santiñe, Fermiñene...* normalizatu.

3.2.2.3. Bokalak

e > i, o > u, a (>e) > i disimilazio bilakaera

-*dd-*, -*b-* soinu epentetikoak

a, e eta *o* bokalak -*a* mugatzaile singularraren aurretik *i* eta *u* bilakatzen dira egun Urretxu eta Zumarragan, Goierriko gainerako herrietan ez bezala. Bestalde, -*dd-* eta -*b-* (noiz edo noiz) soinu epentetikoa tartekatzen da *i, u* bokalen eta -*a* mugatzailearen artean. Hona hemen adibideak:

/zulóaldíá/ (< Zuloagalde+a, Urre, 1995), *Tortua* (Torto+a, Urre, 1815), */txariá/* (*Txarea < Txara+a, Urre, 1995), */txaltópagariddá/* (Txaltopagadi+a, Urre, 1995), *laixásoburubá/* (Areitzagabasoburu+a, Zum, 1998)

Normalizatzeko garaian, ordea, ez dira aldaketa fonetiko horiek kontuan izan. Aldiz, *-a + a* elkarketaren ondorioz gertatzen den bilakaera (*-aa > -ea > ia*), kontu fonetiko hutsa ez den neurrian, jasotzea erabaki da.

bokal berdinen elkarketa

Elkarren segidan bi bokal dauzkagunean biak mantetzeko irizpidea hartu da. Ad.: *Ankaalde, Baionaalde, Iburretaazpikoa, Eitzagaaldapa, Olaarte, -zaar, -beekoa, Oraa, Etxeerre, Leete, Otaandia...*

bokal aldaketak eta erorketak

Ondoko adibideetan kasu bakoitzean gehien azaltzen den «forma» normalizatu da; erabilitako irizpidea maiztasuna izan da:

etxe + buru: *Etxaburu, Etxeburu*
 etxe + txo: *Etxatxo, Etxetxo*
 liño + potzu: *Liñapotzu, Liñopotzu*
 etxe + aurre: *Etxaurre, Etxeaurre*
 etxe + oste: *Etxoste, Etxeoste*
 iturri + alde: *Iturralde, Iturrialde*
 iturri + aundi: *Iturraundi, Iturriaundi*
 iturri + txiki: *Iturtxiki, Iturritxiki*
 zuma + eta: *Zumeta*

* *-eta*

Ugaritasuna edo tokia adierazten duen atzizki hori *-eta* gisa normalizatu da testuinguru guztietan (bokal, diptongo nahiz kontsonante ondoren) nahiz eta agirietan edo ebakeran *e* bokalik gabe agertu. Hala, */allárrittá/* ebakitzen den toki-izena *Allarrieta* normalizatu da, eta 1924ko agiri batean azaltzen den *Arichota, Ariztxoeta* gisa. Alabaina, *-ta* atzizkiaren jatorria gardena ez den kasuetan dagoenetan utzi da, esate baterako: *Atxibita, Kanteratalde...*

* *-(e)nea*

Oikonimoetan azken hiru mendeetan ugaria den *-enea* atzizkia, *-enea* zein *-nea* gisa normalizatu dira, testuinguruaren arabera. Izan ere, haien berri dugun lehenengo agirietan ere, testuingurak agintzen du bata edo bestea agertzeko garaian. Bokal ondoren *-nea*: *Aietsunea* (Aiesunea; Zum, 1741), *Anduezunea* (Anduzunea; Urre, 1799)... Kontsonante ondoren, ordea, *-enea*: *Galdotsenea* (Galdosenea; Urre, 1771), *Makorsenea* (Marcosenea; Zum, 1741; Urre, 1841)...

Izen berriak, hala ere, *-ene* edo *-ne-z* burutzen dira: *Santiñe* (Urre, 1995), *Prontxone* (Urre, 1995), *Fermiñene* (Urre, 1995)...

* andi/aundi

Aspalditxotik gure eskualdean «aundi» esaten denez, orain arte gorde diren toponimoetan egungo ebakera errespetatu da. Baina, agiri zaharretan baizik azaltzen ez diren toponimoetan jatorrizko «andi» normalizatu da.

3.2.2.4. Kontsonanteak

bustidura

* *Ñ* eta *ll* fonema sabaikariak mantendu egin dira hala ahoskatzen badira edo dokumentazioan idatzita azaldu: *Abendaño, Ipiñogi, Kortagaña, Samiño, Allarrieta, Arkatillu...*

Hitz bukaeran edo hitz-elkartuetako lehen osagaiaren bukaeran baditugu, ordea, *-n* edo *-l-z* normalizatu dira: *Belain, Tontorgain, Otainaldapa, Beainiturri, Txakolinerreka...*

* *TT* sabaikaria ez da errespetatu automatikoki gertatzen denean: *Katilluiturri, Iturbe...* Forma adierazkorretan, ordea, mantendu da: *Pottosoro...*

txistukariak

* *Z* eta *s* frikariak *-n* edo *-r*-ren ondoren doazenean ez dira beti neutralizatzen: *Gainzabala, Donzellasoro, Sorginzulo, Arzaikoa, Aitzipurzuri...* Kasu horietan egungo ebakeraren arabera normalizatu dira.

* *Potxutxulo, Txulokote, Txabaldo, Ormatxabaleta...* eta antzerako toponimoetan afrikatua normalizatu da.

4. LANAREN AURKEZPENEA

Lan hau bi zatitan banatu da: lehenengoan Urretxuko toponimia eta bigarrean Zumarragakoa, bakoitzean leku-izenak hurrenkera alfabetikoan emanez. Herri bakoitzeko toponimoak ez dira auzoen arabera sailkatu, horrek askotan konponezinezko arazoak ekar diezazkigulako³.

Toponimo bakoitzari buruzko informazioa zazpi ataletan banatu da.

1. TOPONIMOA. Toponimo normalizatua proposatzeko garaian kontuan izan dira: orain arte (antzerako azterketetan) erabili izan diren irizpideak; toponimoaren jatorria; bilakaera historikoa; egungo ebakera, eta abar.

3. Baserri eta etxeak auzoka sailka daitezke arazo handirik gabe; ez, ordea, basoak, mendiak, sailak... Izan ere, auzoek ez dute lur-eremu jakinik izaten, udalerriek bezala.

2. KONTZEPTUA. Atal hau betetzeko Jimeno Jurfo-ren sailkapena⁴ hartu da oinarritzat, kontzeptu berri gehiagorekin osatuz.

SGK Sailkapen Geografikorako Kodea	KONTZEPTUA	TOPONIMO KOPURUA	
		Zumarraga	Urretxu
00100	Udalerria	1	3
10104	Baserria, etxebizitza sakabanatua, jauregia, etxaldea	319	127
10106	Baserri-auzoa	14	7
10201	Hiriguneko auzoa	8	6
10202	Kalea	12	17
10203	Plaza	5	3
10205	Etxea	225	180
10301	Etxola	18	5
10304	Harresia		1
20103	Burdinola	3	3
20105	Teileria	1	4
20107	Errota	9	12
20109	Elurzuloa		3
30403	Errepidea	2	1
30404	Bidea	21	16
30406	Zubia	13	15
40703	Ermita, santutxoa	10	10
40704	Gurutzea	6	1
50102	Mendia	16	3
50103	Mendixka	5	10
50200	Mendi baten goialdea	26	17
50201	Mendi tontorra	23	9
50202	Muinoa	9	2
50301	Sakona, harana	112	112
50304	Zabalgunea	33	32
50305	Hegia	36	28
50306	Zeharra	69	11
50307	Harkaitza	10	7
50501	Parajea	354	191
50502	Urbazterra	16	2
50508	Lurtsaila	207	95
50509	Harrobia	2	5
50600	Herri-sailak	5	2
50602	Pagadia	5	2
50603	Hariztia	3	
50607	Gaztainadia	2	
50608	Txaradia		2
50609	Mintegia	2	
60201	Ibaia	7	7
60202	Erreka	70	53
60204	Iturria	30	23
60207	Harraska	2	
60206	Uharka	3	3

4. Jimeno Jurio, J. M. eta beste, 1991, *Nafarroako toponimia eta mapagintza*, Nafarroako Gobernuaren Argitalpen fondoa, Iruñea.

Oharrak:

* 10104. kodearen barnean **baserriak**, **jauregiak**, **etxebizitza sakabanatuak** eta **etxaldeak** sartu dira. Izan ere, ez dira bereizten errazak. Alde batetik, etxe batek aldaketak izan ditzake historian zehar, bistan denez, eta lehen jauregia zena, gaur egun baserria edo etxebizitza sakabanatua soilik bilaka daiteke. Hori gertatzen da *Zabaleta*, *Ipenarrietatorrea*, *Areitzagabaso*, *Legazpijauregi* eta abarrekin. Garai batean jauregi ederrak zirenak, denborarekin baserri bilakatu ziren.

Bestetik, kode horrekin, eraikuntza ez ezik eremua adierazten duten toponimoak ere sailkatu dira, esaterako, *Aizpuru*, *Anduezu*, *Beain*, *Elorriaga*, *Irigoien*, *Matxain*, eta abar luze bat, antzina parajeen izenak zirenak (beti garbi ez badago ere). Hori dela eta, toponimo horiek izaera bikoitza dutela esan daiteke, parajea eta bertan altxatutako eraikina izendatzen dituztenez.

Eraikin bakarra dagoen parajeetan (*Aizpuru*, *Anduezu*, *Irigoien*...) bi kontzeptuak nahastu egiten dira, baina bi edo gehiago direnetan bereizi egiten direla ematen du. Azken horietan, oikonimoek osagai lokatibo bat hartzen dute («goikoa», «bekoa», «andikoa», «emendikoa»...), eta izen zaharra, alderdiaren izena alegia, ez da galtzen. Normala da, horregatik, honelakoak entzutea: «Elorriagatik gora abiatu gara», «Matxaingo zubian elkartu ginen», «Beain kaletik urruti dago»... Dena den, *Elorriaga*, *Matxain*, *Beain* eta antzerako toponimoak alderdia izendatzen dutela ematen duen arren, aspaldidanik eraikinak ere badaudenez, ez dira gainerako leku-izenen parekoak. Horientzat kontzeptu berri bat erabiltzea erabaki da, «**etxaldea**», parajea eta baserriaren arteko zerbait dena.

Ez gara, hala ere, kode berri bat ematera ausartu, kontzeptuak erabakitzea kontu labainkorra baita.

* **Muinoa** kontzeptuarekin lurrazalaren tontorguneak, kokka ttikiak, adierazten dira, Zumarraga eta Urretxun ematen zaien adierarekin.

* Zumarraga eta Urretxun ez dago ia aldaparik gabeko lurrik, eta **zabalguneak** («zabaldoak», «txabaldoak», «zabala», «laugune»...) aldapa gutxiko lekuei esaten zaie.

* **Hegia**, mendiaren bizkarra adierazteko erabiliko da, bertako toponimoetan erabiltzen den bezala.

* **Zeharra**, mendi maldak adierazteko ondo datorren hitza da. Legazpin asko erabiltzen da.

* **Uharka**, presa edo ur-saltoa adierazteko erabiliko da.

* 50600. kodearekin antzinako herri-sailak sailkatuko dira. Izaeraren arabera izen bat edo beste hartzen zuten, hala nola: «**isasi**», «**ipifñogi**» edo «**ostabaso**».

Frantsesarora arte (XIX. mende hasierari esaten zaio horrela) Zumarraga eta Urretxun hiru motatako herri-baso bereizten ziren: «**ipifñogiak**», «**ostabasoak**» eta

«isasiak». Aipatutako garaian, ordea, bi kontzejuek zorrei aurre egiteko gehienak saldu egin zituzten eta, haren ondorioz, deitura haiek esanahiaz hustu eta izen-berezi bezala gorde ziren.

Herri-sail horietatik garoa, orbela, otea, fruituak edo egurra biltzen zituzten herritarrek, sailaren nolakotasunaren arabera. Izan ere, «isasiak», «ipiñogiak» eta «ostabasoak» arau desberdinez baliatzen ziren. Urretxuko udal artxiboan irakurtzen den bezala «isasiak» «ostabasoak» baino zaharragoak ziren: “...los Ysasis son de inmemorial tiempo, y los Ostavazos nuevos”

* Zenbait toponimotan kontzeptuari dagokion informazioaren ondoren egungo egoerari dagokiona gaineratu diogu. Hala, baserrien kasuan, «eroria» edo «ez dago», baldin eta egun ezaguna ez bada.

3. ITURRIAK. Hirugarren atalean, miatutako agirien berri emango da, era honetan antolatuta: urtea, agiriaren laburdura eta toponimoaren testuingurua.

4. EBAKERA. Atal honetan, elkarrizketa bidez jasotako toponimoen ebakera eskainiko da, transkribaketa sasi-fonetikoan eta azentua markatuz. Haren ondotik berriemailearen datuak.

5. KOKAGUNEA. Toponimoaren kokagune zehatza ezagutzen denean Gipuzkoako Aldundiko 1:5.000 eskalako zein planotan dagoen adieraziko da. Hiri-toponimoen kasuan, HIRIBARRUA (+ hiri-auzunearen izena) adieraziko da.

6. ADIERAKIDEAK. Leku batek deitura bat baino gehiago izan ditzake historian zehar, hala nola, Zumarragako *Mendizabal* baserriak: *Elgarresta*, *Etxeerre*, *Etxeerrelgarresta*, *Elgarrestaetxeerreta*, *Etxeerreta*, *Elgarrestaetxeerre*, *Elgarrestaetxea*, *Elgarrestaetxeberri*, *Elgarrestabea*, *Elgarrestabarrena* eta *Ibargurenelgarresta*. Horrelako kasuetan, bat aukeratu da planoan kokatu ahal izateko, eta gainerako deiturak adierakidetzat hartu.

Aukeratutako deiturari dagokion sarreran adierakide guztiak jarri dira, eta adierakideei dagokien sarreretan «Adierakideak» atalean *ikus* + (AUKERATUTAKO DEITURA).



7. OHARRAK. Atal honetan toponimoari buruz topatutako hainbat datu interesgarri bildu dira: datu historikoak, etnografikoak, geografikoak, izenaren jatorriari buruzkoak, pasadizoak...

5. BIBLIOGRAFIA OROKORRA

- Agud, M., Tovar, A., 1981-1995, *Diccionario etimológico vasco (I-VII)*, ASJU, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia
- Aldabaldetrecu, R., 1979, *Casas solares de Guipúzcoa*, Donostia, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa
- Alustiza, J., 1985, *Euskal baserriaren inguruan*, Oñati, Arantzazu frantziskotarren argitaletxea
- Apezetxea, P., 1985, “Etxalarko etxe eta baserrien izenak (1625-1983)”, *FLV* 45: 183-203

- Arbide, I. eta beste, 1980, *Ferrerías en Legazpi*, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, Col. Documentos 25
- Arbizu, N., 1990, "Toponimia de Iturmendi", *FLV* 56: 261-275
- Askoren artean, 1986, *Estudios de Historia de Urretxu*, Urretxuko udala
- Astiazaran, M.I., 1995, *La construcción de Caminos reales de Gipuzkoa en el siglo XVIII*, Donostia, Gipuzkoako Aldundia (1765-1770ko datuak)
- Azkue, R.M., 1969 (1905), *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbo, Edit. La Gran Enciclopedia Vasca
- Barrena, E., 1991, *Historia de las Vías de Comunicación en Gipuzkoa. I. Antigüedad y Medioevo*, Gipuzkoako Foru Aldundia
